

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

786

AGINDUA, 2017ko urtarrilaren 26koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren lurzorua erosteko baldintzak ezartzeko dena, lurzoru horretan azalera-eskubideko zenbait higiezin eraikita baitaude.

Jaurlaritzaren Kontseiluak honako hau erabaki zuen 2017ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran:

«Lehenengoa.– Baimena ematea Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako Sailari kostu bidez besterendu dezan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren jabetzakoa den lurzorua, lurzoru horren gainean eraikitako babes ofizialeko azalera-eskubideko etxebizitzaren titularrei zuzenean esleituta, egindako birkokatzeen etxebizitzaren kasuan izan ezik, eta orduan birkokatutako pertsonak badira gaur egungo titularrak.

Bigarrena.– Baimena ematea Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako Sailari kostu bidez besterendu dezan aurreko atalean aipatutako etxebizitzek osatzen duten jabeen erkidegoetan dauden merkataritza-lokal eta atxiki gabeko eranskinok okupatzen duten lurzorua, horien titularrei zuzenean esleituta.

Hirugarrena.– Baimena ematea Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako Sailari kostu bidez besterendu dezan azalera-eskubidean eraikitako eta hirigintza-jarduerarako eremu berean eraikitako etxebizitza-sustapenei emandako babes ofizialaren luzapenaren babespeko merkataritza-lokalek eta atxiki gabeko eranskinok okupatzen duten lurzorua, merkataritza-lokal eta atxiki gabeko eranskin horien titularrei zuzenean esleituta.

Laugarrena.– Baimena ematea Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako Sailari kostu bidez besterendu dezan etxebizitza horien lurzorua, aldi baterako kalifikazioaren epea bukatzeagatik babes ofiziala galdu duten azalera-eskubideko etxebizitzaren titularrei zuzenean esleituta.

Bosgarrena.– Baimena ematea Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako Sailari kostu bidez besterendu dezan aurreko atalean aipatutako etxebizitzek osatzen duten jabeen erkidegoetan dauden merkataritza-lokal eta atxiki gabeko eranskinok okupatzen duten lurzorua, horien titularrei zuzenean esleituta.

Seigarrena.– Baimena ematea Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako Sailari, duen balio ekonomikoa ordaindu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak babes ofizialeko eta hirurogeita hamabost urterako jabetza-araubidean eskualdatu ziren etxebizitza, lokal eta atxiki gabeko eranskin batzuen jabaria itzultzeko eskubideari uko egiteko.

Zazpigarrena.– Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako Sailak zehaztuko ditu lurzoru hori besterentzeko eskatzaileen baldintza ekonomikoak eta gehieneko diru-sarrerak, zer izapide jarraitu behar den, lurzorua nola balioetsi behar den, jabaria itzultzeko eskubidea eta zer epetan besterendu behar den.»

Horiek horrela, alderdi horiek zehazte aldera, honako agindu hau ematea erabaki da.

Azalera-eskubidea da inoren lurzoruaren gainean edo azpian eraikitzea ahalbidetzen duen eskubide erreal bat, eta eraikitakoaren gainean aldi baterako jabetza ematen du. Beraz, eraiki ondoren, nolabaiteko bikoiztasuna dugu jabetzari dagokionez: (i) lurzoruari dagokiona eta (ii)

eraikin erresultantea xede duena: eraikuntza. Horixe da, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren jabetzako lurzoruetan eraikitako araubide orokorreko eta bereziko babes ofizialeko hainbat etxebizitzaren egoera.

Ohiko baldintzetan, ezarritako denbora igarotzeagatik azalera-eskubidea iraungitzen denean, Administrazioak bere egingo luke eraikitakoaren jabetza, horregatik kalte-ordainik ordaindu beharrik izan gabe, eskubidea eratzeko titulua edozein dela ere. Iraungitzearen ondorioz, era berean, ezarritako eskubide erreal eta pertsonal guztiak ere iraungi egingo lirarteke, hau da, eskubidedunek galdu egingo lukete sustapen beretako babes ofizialeko etxebizitzaren, merkataritza-lokalen eta atxiki gabeko eranskinen gaineko jabetza.

Galera hori gerta ez dadin, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak –sailburuaren 2010eko uztailaren 21eko, 2011ko maiatzaren 18ko eta 2012ko uztailaren 26ko Aginduen bidez– bi eragiketa abiarazi zituen, azalera-eskubideko babes ofizialeko etxebizitzaren, merkataritza-lokalen eta atxiki gabeko eranskinen titular jakin batzuek azaleraren jabetza eskura zezaten.

Honela, 2010eko uztailaren 21eko Agindua bideratua zegoen 2003ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko kalifikazioa zuten babes ofizialeko etxebizitzaren titularrei; horrenbestez, lurzoruaren jabe egiteko, etxebizitzaren titularrek eskatu behar zuten babes ofizialeko etxebizitzaren kalifikazio iraunkorra.

Hala ere, 2011ko maiatzaren 18ko Agindua bideratua zegoen kalifikazio iraunkorra bazuten babes ofizialeko etxebizitzaren titularrei; izan ere, 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera emandako kalifikazioei zegokien, eta horiek denak iraunkorrak dira.

2012ko uztailaren 26ko Agindua bideratua zegoen erosteko aukeraz baliatu ez ziren bi kolektiboak osatzen zituztenei, 2011ko ekainaren 1aren ondotik kalifikatutako higiezinak barne, eta ahalbidetzen zien jabetasun mugagabea eskuratzea zenbait etxebizitzaren titularrei, jabetasun osoaren erregimenean eskualdatuak, baina 75 urterako eta zeinen gainean Euskal Autonomia Erkidegoak jabetza itzultzezko eskubidea baitu.

Bestalde, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2013ko azaroaren 20ko Aginduak abian ezarri zuen lurzoria saltzeko laugarren fase bat, aurreko faseetan barne hartutako higiezin guztiei irekia, zeinen jabeek, hainbat arrazoi tarteko, ez baitzituzten eskuratu ahal izan. Agindu horren berritasun bakarra zen ez ziela mugarik ezartzen higiezin horien titularren sarrerei.

Azkenik, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2015eko urtarrilaren 28ko Aginduak bosgarren salmenta-fase bat ezarri zuen, eta fase hartan lurzoria erosteko aurreko fasearen ondoren kalifikatutako lau sustapenetako 605 higiezin berri sartu ziren.

Esperientzia 2017an errepikatuko da, baldintza berdinetan, aurreko salmenta-fasea abian jarri ondoren kalifikatutako sustapenak sartuz; beraz, seigarren deialdi hau guztira 20.223 higiezinentzat izango da, etxebizitzak, atxikitako edo atxiki gabeko eranskinak eta merkataritza-lokalak barne.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Honako hauek erosi ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren jabetzako lurzoria:

a) Azalera-eskubidean eraikitako babes ofizialeko etxebizitzaren erregistro-titularrek, salbu birkokatzeetara bideratuak, zeinen egungo titularrak orduan birkokatu ziren pertsona berak badira;

agindu honen III. eranskinean xedatutako baldintzak bete behar dituzte. Aldi baterako kalifikazioa duten etxebizitzak badira, beren titularrek, aldi berean, kalifikazio iraunkorra eskatu beharko dute.

b) Etxebizitza horiek osatzen dituzten jabeen erkidegoen eraikinetan dauden merkataritza-lokalen eta atxiki gabeko eranskinen erregistro-titularrek.

c) Babes ofizialeko etxebizitzaren sustapen horietan ez dauden merkataritza-lokalen eta eranskinen erregistro-titularrek, baldin eta azalera-eskubidean eraikita badaude eta hirigintza-jarduerarako eremu berean eraikitako etxebizitza-sustapenei emandako babes ofizialaren luzapenaren babespekoak badira.

d) Azalera-eskubidean eraikitako etxebizitzaren erregistro-titularrek, baldin eta babes ofiziala galdu badute aldi baterako kalifikazioaren epea igaro delako, eta, aldi berean, etxebizitza horien kalifikazio iraunkorra eskatzen badute.

e) Etxebizitza horiek osatzen dituzten jabeen erkidegoen eraikinetan dauden merkataritza-lokalen eta atxiki gabeko eranskinen erregistro-titularrek.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak babes ofizialeko eta hirurogeita hamabost urterako jabetza-araubidean dituen etxebizitza batzuen jabaria itzultzeko eskubideari uko egin diezaiola eskatu ahal izango dute:

a) Aldi berean etxebizitzaren kalifikazio iraunkorra eskatzen duten etxebizitza horien erregistro-titularrek.

b) Etxebizitza horiek osatzen dituzten jabeen erkidegoen eraikinetan dauden merkataritza-lokalen eta atxiki gabeko eranskinen erregistro-titularrek.

Hirugarrena.– Lurzorua erosi nahi dutenek edo jabaria itzultzeko eskubideari uko egin nahi diotenek beren lurralde historikoko Etxebizitzako lurralde ordezkariari zuzendu beharko diote eskabide-orria, dagokion dokumentazioarekin batera. Eskabidea agindu honen II. eranskinean datozen ereduaren arabera izango da. Eskabidea horretarako dauden edozein erregistro publikotan aurkeztu ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko, 39/2015 Legearen 16.4 artikulua arabera.

Laugarrena.– Aldi baterako kalifikazioa duten babes ofizialeko etxebizitzaren eta aldi baterako kalifikazioaren epea bukatzeagatik babes ofiziala galdu duten etxebizitzaren titularrek lurzorua erosi ahal izateko, eta etxebizitzaren itzulketa-eskubideari uko egiteko eskatu ahal izateko, berariaz eskatu beharko da behin betiko babes ofizialeko etxebizitzaren kalifikazio iraunkorra emateko.

Bosgarrena.– Lurzorua erosteko finantzaketa kalifikatua lortu nahi duten babes ofizialeko etxebizitzaren titularrek hala adierazi beharko dute eskabide-orrian horretarako jarritako atalean.

Seigarrena.– Eskaerak aurkezteko epea 2017ko martxoaren 1etik ekainaren 30era bitartekoa izango da.

Zazpigarrena.– Lurzoruaren balioespena –erosteko prezioa kalkulatu ahal izateko– eta jabariaren gaineko itzulketa-eskubidearen balioespen ekonomikoa agindu honen I. eranskinean aurreikusitako eran egingo dira.

Zortzigarrena.– Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak eragiketaren azken prezioa (BEZa barne) jakinaraziko dio eskatzaileari, bai eta ordaintzeko modua eta epea ere, zeina ez baita hilabetekoa baino gehiago izango.

Bederatzigarrena.– Interesdunak finantza-neurriak ere eskatu baditu, azken prezioarekin batera neurri horiek onartu zaizkion ala ez adierazteko ebazpena jakinaraziko zaio.

Hamargarrena.– Lurralde historikoan dauden zoruak erosteko eskabide-kopurua eta sustapenen ezaugarriak aintzat hartuz, Etxebizitzako lurralde-ordezkariek dagokion lurzorua besterengarritasun-adierazpenaren proposamena bidaliko dio Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari, horrek, ondoren, adierazpenari buruzko ebazpena onar dezan, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartzeko azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren 89. artikuluan ezarritako eran.

Jabaria itzultzeko eskubideari uko egiteko, besterengarritasun-adierazpenik ez da behar.

Hamaikagarrena.– Azken prezioa ordaindurik edo jabariaren itzulketa-eskubidearen balio ekonomikoa ordaindurik, baldin eta eskatzailea aldi baterako kalifikazioa duen edo izan duen etxebizitza baten titularra bada, lurralde-ordezkariek ebazpena emango du babes ofizialeko etxebizitzari kalifikazio iraunkorra emateko.

Hamabigarrena.– Izapide guztiak amaitutakoan, Etxebizitzako lurralde-ordezkariek erosteko eskaerari buruzko ebazpen baielea edo jabariaren itzulketa-eskubideari uko egiteko ebazpena emango du; ebazpenean jasoko dira eskualdatzea formalizatu eta erregistratu ahal izateko behar diren datu guztiak, eta interesdunei eskritura publikoa egiteko deia egingo zaie.

Hamahirugarrena.– Euskadiko Ondareari buruzko Legearen 91. artikuluan xedatutakoarekin bat, baldin eta eskabidea erregistratu eta sei hilabeteko epean Etxebizitzako lurralde-ordezkariek ez badu berriaz ebatzi, eskariari ezetz erantzun zaiola ulertu beharko da.

Hamalagarrena.– Etxebizitzako lurralde-ordezkariek beharrezko diren xedapen egintza guztiak gauzatuko dituzte jabariaren itzulketa-eskubidearen eskualdatzea edo uko egitea eskritura publikoaren bidez formalizatzeke.

Hamabosgarrena.– Eskualdatzeak eragindako eskritura- eta erregistro-gastuak eta zergak erosleek edo jabariaren itzulketa-eskubideari egindako ukoaren onuradunek ordaindu beharko dituzte, hiri-izaerako lurren balioaren handitzeagatik zerga izan ezik.

Hamaseigarrena.– Eskritura publiko bihurtu ondoko sei hilabeteetan Jabetzaren Erregistroan inskribatu ezean, jabaria berrikusteko eskubidearen transmisioa edo ukoa automatikoki geratuko da ebatzita.

Hamazazpigarrena.– Ebazpen honen aurka hautazko berraztertzeke errekurtsoa aurkez daiteke Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren aurrean; halaber, zuzenean jar daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Goreneko dagokion salan, bi hilabeteko epean. Batera nahiz bestera egin, epeak Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik aurrera zenbatuko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 26a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

I. ERANSKINA

BALIOESPEN-SISTEMA

Lehenengoa.– Erosteke prezioa finkatu ahal izateko, lurzoruaren balioespena martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 7. artikuluan eta babes ofizialeko higiezin balioespenerako aplikatu beharreko gainerako arauetan aurreikusitako eran egingo da (39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa).

Etxebizitza, merkataritza-lokal eta atxiki gabeko eranskin bakoitzari dagokion lurzoruaren prezioa kalkulatzeko, urrats hauek egingo dira:

1.– Eraikin osoaren balioaren kalkulua.

Lehenik eta behin, eraikinaren guztizko balioa kalkulatu da. Horretarako, berau osatzen duten elementu guztiei dagozkien balioak gehituko dira, hau da, etxebizitzak eta horiei atxikitako eranskinak, merkataritza-lokalak eta atxiki gabeko eranskinak.

Etxebizitzak eta horiei atxikitako eranskinak agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean indarrean eta eguneratuta dauden gehieneko prezio ofizialen arabera balioetsiko dira, eta lokalak eta atxiki gabeko eranskinak, merkatuko prezioaren arabera.

Etxebizitzaren sustapenetako merkataritza-lokalek eta atxiki gabeko eranskinak merkatuan zein prezio duten jakiteko, kasuan kasuko lurralde historikoan garaje, lokal eta trastelekuen salmentako batez besteko prezioak hartuko dira aintzat. Datuak Etxebizitzaren Euskal Behatokiak higiezin eskaintzari buruz argitaratutako 2017ko laugarren hiruhilekoari dagozkion estatistika ofizialetik hartuko dira. Baldin eta elementu horietakoren batentzat lurralde historikoko daturik eskuratzetik ez badago, Euskal Autonomia Erkidegoaren batez bestekoa erabiliko da.

Etxebizitzaren sustapenetako merkataritza-lokalek eta atxiki gabeko eranskinak merkatuan zein prezio duten jakiteko, peritu-tasazioa erabiliko da, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako Sailak egina edo tasazio-sozietateei eta horretarako legez gaituta dauden enpresei egiteko eskatua.

2.– Eraikina hartzen duen lurzoruaren balio osoaren kalkulua.

Besterentze-prozedura honetarako, eraikinaren balio osoari % 10 aplikatuko zaio oihartzun-balio gisa eraikinaren balioan.

3.– Jabetza horizontalaren kuoten arabera, azken prezioa ezartzea.

Lurzoruaren azken balioespena egiteko, kontuan izango da eraikinak hartzen dituen etxebizitza eta horiei atxikitako eranskin, merkataritza-lokal eta atxiki gabeko eranskin adina zatitan banatua egotea. Zati bakoitzari dagokion prezioa kalkulatzeko, eraikina hartzen duen lurzoruaren balio osoa biderkatuko da etxebizitza eta horiei atxikitako eranskin, merkataritza-lokal eta atxiki gabeko eranskin bakoitzari dagokion partaidetza-kuotarekin.

4.– Balio Erantsiaren gaineko Zerga aplikatzea.

Azkenik, etxebizitza, merkataritza-lokal edo eranskin bakoitzaren azken prezioari dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa) erantsiko zaio.

Bigarrena.– Sistema hori erabiliko da, orobat, jakiteko zein den Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak babes ofizialeko eta hirurogeita hamabost urterako jabetza-araubidean eskualdatu ziren etxebizitza batzuen jabaria itzultzeko eskubidearen prezioa.

2017ko otsailaren 13a, astelehena

II. ERANSKINA

ESKABIDE-EREDUA, ALDI BATERAKO KALIFIKAZIOA DUTEN BOE-EN ETA BOE-EN
SUSTAPENETAN SARTU GABEKO NEGOZIO-LOKALEN ETA ERANSKINEN SUSTAPENERAKO
.....KO ETXEBIZITZAKO LURRALDE-ORDEZKARIARI AURKEZTEKOA

Eskatzailea (adinez nagusia): (NA-zk.:.....).
Eskatzailea (adinez nagusia): (NA-zk.:).
Eskatzailea (adinez nagusia): (NA-zk.:.....).
Jakinarazpenetarako helbidea:
Harremanetarako telefonoa: Eskatzaile horiek Etxebizitzako lurralde-
ordezkaritza honetan agertu, eta honako hau DIO(TE):

..... (e)an argitaratu dela, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren.....(e)ko Agindua, azalera-eskubidean eraikita dauden hainbat higiezin hartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren lurzorua erosteko eskakizunak ezartzen dituen.

Gaur egun, honako hauen titular d(ir)a:

*Etxebizitza. Helbidea: Udalerrria:
Posta-kodea: Kalifikazioaren espediente-zenbakia **:
Noiz erositako (azalera-eskubidean): Notarioa: Atxikitako
garajea. Zk.:..... Helbidea:..... Atxikitako trastelekua.
Zk.:.....Helbidea:.....

*Atxiki gabeko GARAJEA. Zk.:..... Helbidea:
Udalerrria: Posta-kodea: Noiz erositako (azalera-eskubidean):
..... Notarioa:

* Atxiki gabeko TRASTELEKUA. Zk.:..... Helbidea:
..... Udalerrria: Posta-kodea: Noiz
erositako (azalera-eskubidean): Notarioa:

* Merkataritza-lokala. Helbidea: Udalerrria:
..... Posta-kodea: Noiz erositako (azalera-eskubidean):
..... Notarioa:

Eta aginduan ezarritako eskakizun guztiak betetzen ditu(zt)ela. Hortaz, honako hau

ESKATZEN DU(TE):

1.- Etxebizitza horri eta atxikitako eranskinei/merkataritza-lokalari/atxiki gabeko eranskinari* dagokion lurzorua erosi ahal izatea, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren ... Aginduan aurreikusitako eran (azalera-eskubidean eraikita dauden hainbat higiezin hartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren lurzorua erosteko eskakizunak ezartzen dituen).

2.- Etxebizitza babes ofizialeko gisa kalifikatzea iraunkorki, Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 11.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. **

AUKERAKOA

*** Indarreko araudian aurreikusitako finantza-neurrietara biltzea.

....., 20.. (e)ko.....aren.....(e)an.

Sin.: jauna/andrea Sin.: jauna/andrea Sin.: jauna/andrea

* Aukeratu dagokiona.

** Etxebizitzen kasuan soilik aplikatu beharrekoa.

*** Atal hau babes ofizialeko etxebizitzen eta atxikitako eranskinen titularrentzat baino ez da. ez die eragiten ez merkataritza-lokalen titularrei, ez atxiki gabeko eranskinen titularrei.

Honako dokumentu hauek ere aurkeztu ditut:

- Etxebizitzaren, merkataritza-lokalaren edo atxiki gabeko eranskinaren jabetza egiaztatzen duen Jabetza Erregistroaren ohar sinplea, eskabidea aurkeztu baino gehienez ere zazpi egun baliodun lehenago egindakoa.

KALIFIKAZIO IRAUNKORRA DUTEN BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN SUSTAPENETARAKO
ESKABIDE-EREDUAKO
ETXEBIZITZAKO LURRALDE-ORDEZKARIARI AURKEZTEKOA

Eskatzailea (adinez nagusia): (NAN-zk.:.....).
Eskatzailea (adinez nagusia): (NAN-zk.:).
Eskatzailea (adinez nagusia): (NAN-zk.:.....).
Jakinarazpenetarako helbidea:
Harremanetarako telefonoa: Eskatzaile horiek Etxebizitzako lurralde-
ordezkaritza honetan agertu, eta honako hau DIO(TE):

..... (e)an argitaratu dela, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren.....(e)ko Agindua, azalera-eskubidean eraikita dauden hainbat higiezin hartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren lurzorua erosteko eskakizunak ezartzen dituena.

Gaur egun, honako hauen titular d(ir)a:

* Etxebizitza. Helbidea: Udalerria:
Posta-kodea: Kalifikazioaren espediente-zenbakia **:
Noiz erositako (azalera-eskubidean): Notarioa: Atxikitako
garajea. Zk.:..... Helbidea:..... Atxikitako trastelekua.
Zk.:.....Helbidea:.....

* Atxiki gabeko GARAJEA. Zk.:..... Helbidea:
Udalerria: Posta-kodea: Noiz erositako (azalera-eskubidean):
Notarioa:

* Atxiki gabeko TRASTELEKUA. Zk.:..... Helbidea:
..... Udalerria: Posta-kodea: Noiz
erositako (azalera-eskubidean): Notarioa:

* MERKATARITZA-LOKALA. Helbidea: Udalerria:
..... Posta-kodea: Noiz erositako (azalera-eskubidean): Notarioa:

Eta agindu horretan ezarritako eskakizun guztiak betetzen dituztela. Hortaz,

ESKATZEN DU(TE):

Etxebizitza horri eta atxikitako eranskinei/merkataritza-lokalari/atxiki gabeko eranskinari* dagokion lurzorua erosi ahal izatea, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2017korenko Aginduan aurreikusitako eran (azalera-eskubidean eraikita dauden hainbat higiezin hartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren lurzorua erosteko eskakizunak ezartzen dituena).

AUKERAKOA

*** Indarreko araudian aurreikusitako finantza-neurrietara biltzea.

....., 201... (e)ko.....aren.....(e)an.

Sin.: jauna/andrea Sin.: jauna/andrea Sin.:..... jauna/andrea

* Aukeratu dagokiona.

*** Atal hau babes ofizialeko etxebizitzaren eta atxikitako eranskinen titularrentzat baino ez da. ez die eragiten ez merkataritzakoak ez diren lokalen titularrei, ez atxiki gabeko eranskinen titularrei.

Honako dokumentu hauek ere aurkeztu ditut:

- Etxebizitzaren, merkataritza-lokalaren edo atxiki gabeko eranskinaren jabetza egiaztatzen duen Jabetza Erregistroaren ohar sinplea, eskabidea aurkeztu baino gehienez ere zazpi egun baliodun lehenago egindakoa.

2017ko otsailaren 13a, astelehena

ESKABIDE-EREDUA, ALDI BATERAKO KALIFIKAZIOAREN EPEA BUKATZEAGATIK BABES
OFIZIALA GALDU DUTEN SUSTAPENETARAKO
.....KO ETXEBIZITZAKO LURRALDE-ORDEZKARIARI AURKEZTEKOA

Eskatzailea (adinez nagusia): (NAN-zk.:.....).
Eskatzailea (adinez nagusia): (NAN-zk.:).
Eskatzailea (adinez nagusia): (NAN-zk.:.....).
Jakinarazpenetarako helbidea:
Harremanetarako telefonoa: Eskatzaile horiek Etxebizitzako lurralde-
ordezkaritza honetan agertu, eta honako hau DIO(TE):

..... (e)an argitaratu dela, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Ingurumen,
Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren XXXX(e)ko XXXXXaren XX(e)ko Agindua, azalera-
eskubidean eraikita dauden hainbat higiezin hartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko
Administrazioaren lurzorua erosteko eskakizunak ezartzen dituen.

Gaur egun, honako hauen titular d(ir)a:

* Etxebizitza. Helbidea: Udalerrria:
Posta-kodea: Kalifikazioaren espediente-zenbakia **:
Noiz erositia (azalera-eskubidean): Notarioa: Atxikitako
garajea. Zk.:..... Helbidea:..... Atxikitako trastelekua.
Zk.:.....Helbidea:.....

* Atxiki gabeko GARAJEA. Zk..... Helbidea: Udalerrria:
..... Posta-kodea: Kalifikazioaren espediente-zenbakia **:
..... Noiz erositia (azalera-eskubidean): Notarioa:
.....

* Atxiki gabeko TRASTELEKUA. Zk.:..... Helbidea:
Udalerrria: Posta-kodea: Kalifikazioaren espediente-zenbakia
**: Noiz erositia (azalera-eskubidean): Notarioa:
.....

* *Merkataritza-lokala. Helbidea: Udalerrria:
..... Posta-kodea: Noiz erositia (azalera-eskubidean):
..... Notarioa:

Eta aginduan ezarritako eskakizun guztiak betetzen ditu(zt)ela. Hortaz, honako hau

ESKATZEN DU(TE):

1.- Etxebizitza horri eta atxikitako eranskinei/merkataritza-lokalari/atxiki gabeko eranskinari*
dagokion lurzorua erosi ahal izatea, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren
2013ko azaroaren 20ko Aginduan aurreikusitako eran (azalera-eskubidean eraikita dauden hainbat
higiezin hartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren lurzorua erosteko eskakizunak
ezartzen dituen).

2.- Etxebizitza babes ofizialeko gisa kalifikatzea iraunkorki, Babes publikoko etxebizitzaren
araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren
4ko 39/2008 Dekretuaren 11.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.**

AUKERAKOA

Indarreko araudian aurreikusitako finantza-neurrietara biltzea.

2017ko otsailaren 13a, astelehena

....., 201.. (E)ko.....aren.....(e)an.

Sin.: jauna/andrea sin.: jauna/andrea sin.:..... jauna/andrea

* Aukeratu dagokiona.

** Etxebizitzen kasuan soilik aplikatu beharrekoa.

*** Atal hau babes ofizialeko etxebizitzen eta atxikitako eranskinen titularrentzat baino ez da. ez die eragiten ez merkataritza-lokalen titularrei, ez atxiki gabeko eranskinen titularrei.

Honako dokumentu hauek ere aurkeztu ditut:

- Etxebizitzaren, merkataritza-lokalaren edo atxiki gabeko eranskinaren jabetza egiaztatzen duen Jabetza Erregistroaren ohar sinplea, eskabidea aurkeztu baino gehienez ere zazpi egun baliodun lehenago egindakoa.

2017ko otsailaren 13a, astelehena

ESKABIDE-EREDUA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK ALDI BATERAKO JABETZA
 ARAUBIDEAN ESKUALDATUTAKO SUSTAPEN JAKIN BATZUEN GAINEAN DUEN JABARIA
 ITZULTZEKO ESKUBIDEARI UKO EGITEKO
KO ETXEBIZITZAKO LURRALDE-ORDEZKARIARI AURKEZTEKOA

Eskatzailea (adinez nagusia): (NAN-zk.:).
 Eskatzailea (adinez nagusia): (NAN-zk.:).
 Eskatzailea (adinez nagusia): (NAN-zk.:).
 Jakinarazpenetarako helbidea:
 Harremanetarako telefonoa: Eskatzaile horiek Etxebizitzako lurralde-
 ordezkariak honetan agertu, eta honako hau DIO(TE):

Egun honetan: argitaratu dela, Euskal Herriko
 Agintaritzaren Aldizkarian, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako
 sailburuaren..... Agindua, azalera-eskubidean eraikita dauden hainbat higiezin hartzen
 duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren lurzorua erosteko eskakizunak ezartzen
 dituena.

Gaur egun, honako hauen titular d(ir)a:

* Etxebizitza. Helbidea: Udalerria:
 Posta-kodea: Kalifikazioaren espediente-zenbakia **:
 Noiz erositako (hirurogeita hamabost urterako jabetza-araubidean): Notarioa:
 Atxikitako garajea. Zk.: Helbidea:
 Atxikitako trastelekua. Zk.: Helbidea:

* Atxiki gabeko GARAJEA. Zk.: Helbidea:
 Udalerria: Posta-kodea: Noiz erositako (azalera-eskubidean):
 Notarioa:

* Atxiki gabeko TRASTELEKUA. Zk.: Helbidea:
 Udalerria: Posta-kodea: Noiz
 erositako (azalera-eskubidean): Notarioa:

* Merkataritza-lokala. Helbidea: Udalerria:
 Posta-kodea: Noiz erositako (azalera-eskubidean):
 Notarioa:

Eta agindu horretan ezarritako eskakizun guztiak betetzen dituztela. Hortaz,

ESKATZEN DU(TE)

1.- Atxikitako eranskinak/merkataritza-lokalak/atxiki gabeko eranskinak dituen etxebizitza horren
 gainean Euskal Autonomia Erkidegoak duen jabaria itzultzeko eskubideari uko egitea, Enplegu eta
 Gizarte Gaietako sailburuaren 2013ko azaroaren 20ko Aginduan aurreikusitako eran (2013ko
 azaroaren 20ko Agindua, azalera-eskubidean eraikita dauden hainbat higiezin hartzen duen Euskal
 Autonomia Erkidegoko Administrazioaren lurzorua erosteko eskakizunak ezartzen dituena).

2.- Etxebizitza babes ofizialeko gisa kalifikatzea iraunkorki, Babes publikoko etxebizitzaren
 araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruen inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren
 4ko 39/2008 Dekretuaren 11.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. **

AUKERAKOA

*** Indarreko araudian aurreikusitako finantza-neurrietara biltzea.

2017ko otsailaren 13a, astelehena

..... , 201.. (e)ko.....aren.....(e)an.

Sin.: jauna/andrea Sin.: jauna/andrea Sin.:..... jauna/andrea

* Aukeratu dagokiona.

** Etxebizitzen kasuan soilik aplikatu beharrekoa.

*** Atal hau babes ofizialeko etxebizitzen eta atxikitako eranskinen titularrentzat baino ez da. ez die eragiten ez merkataritzakoak ez diren lokalen titularrei, ez atxiki gabeko eranskinen titularrei.

Honako dokumentu hauek ere aurkeztu ditut:

- Etxebizitzaren, merkataritza-lokalaren edo atxiki gabeko eranskinaren jabetza egiaztatzen duen Jabetza Erregistroaren ohar sinplea, eskabidea aurkeztu baino gehienez ere zazpi egun baliodun lehenago egindakoa.

III. ERANSKINA

ESKATZAILEEK BETE BEHARREKOAK

Eusko Jaurlaritzak babes ofizialeko etxebizitza bat erosteko emandako hipoteka-bermedun mailegu bat jaso duten pertsonak eguneko egon beharko dute mailegu horren ordainketan, eskabidea aurkezten den unetik eskualdatzea eskritura publiko bihurtu arte.